

# KANBOKO HERRI BILTZARRAREN 2016KO OTSAILAREN 29KO BILKURA

Herri Biltzarra herriko etxean bildu da, Vincent BRU jaunaren lehendakaritzapean, 2016ko otsailaren 29an, astelehenarekin, 20 orenetan.

Bertan ziren: Vincent Bru auzapez jauna, Bernadette Jougleux and., Christian Devèze j., Eliane Noblia and., Frédéric Bardin j., Pascale Lespade and., Didier Irastorza j., Eliane Aizpuru and., Henri Saint Jean j., auzapezordeak, Anne-Marie Pontacq and., Vincent Goytino j., Christiane Hargain-Despéries and., Patrice Dor j., Yolande Huguenard and., Jean-Jacques Lassus j., Argitxu Hirigoyen and., Jean-Noël Magis j., Corinne Othatceguy and., Maryannick Hirigoyen and., Roger Barbier j., Carmen Gonzalez and., Pascal Bourguet j., Véronique Larronde and., Argitxu Hiriart-Urruty and., Philippe Bacardatz j., Nathalie Aïçaguerre and., Pantxo Michelena j., herri kontseilariak.

Ezin bertaratuak: Peio Etchelecu j., Camille Jenvrin j., herri kontseilariak.

Ahalordeak: Peio Etchelecu jaunak Pascal Bourguet jaunari, Camille Jenvrin jaunak Bernadette Jougleux andreari.

## **1 – Bilkura idazkaria izendatzea.**

Bertaratuek, **aho batez**, Argitxu Hirigoyen andrea hautatu dute bilkura idazkari.

## **2 – Azken bilkura agiria onartzea.**

Auzapez jaunak, biltzarkideei, 2016ko otsailaren lehenean egin zuten azken bilkuraren agiriaren gaineko oharrik ote duten galdegin die. Oharrik ez denez, azken bilkuraren agiria aho batez onartu da.

## **3 – 2015eko kudeaketa kontuen bozketa.**

Auzapez jaunak biltzarrari eskatu dio diru publikoen zuzendaritza nagusiaren kontulari Chantal Martin andreak aurkeztu kudeaketa kontuak bozka ditzan. Dokumentuok 2015eko administrazio kontuekin doi-doi datozela zehaztu du; administrazio kontu horiek Christian Devèze jaunak aurkeztuko ditu gero.

Bozkatzera emanak izan dira eta aho batez onartuak 2015eko kudeaketa kontuak.

Auzapez jaunak gogora ekarri du finantzen batzordea martxoaren 3an bilduko dela, ostegunez, 18 orenetan, 2016ko hastapeneko aurrekontu proiektuak aztertzeko. Aurrekontu horiek martxoaren 21ean, astelehenez, 20etan eginen duen bilkuran bozkatuko ditu Herri Biltzarrak.

Auzapez jaunak kontseilarietara jakitera eman die bizileku zergaren eta eraikinen nola lur eraikigabeen gaineko funts zergaren 2016rako mailak, iazko mailen berdin-berdin mantentzea erabaki dela.

## 4 – 2015eko administrazio kontuen bozkatzea

Auzapez jaunak, hitza Ch. Devèze, diruen ardura duen auzapezorde jaunari utzi baino lehen, biltzarrari galde egin dio bilkura buru bat hauta dezan, auzapezak eztabaida bitartean parte har baitezake bilkuran, baina administrazio kontuen bozketaren garaian, ordea, alde egin behar duelako.

Auzapez jaunak B. Jogleux andrea, lehen auzapezordea, proposatu du bilkura buru izateko eta beste hautagairik baden galdegin du.

Aho batez izendatu dute B. Jogleux andrea bilkura buru, eta Jogleux andreak Ch. Devèze jaunari eman dio hitza. Azken horrek 2015eko administrazio kontuak aurkeztu ditu; kontu horiek iragan otsailaren 24an bildu zen Finantza batzordeak aztertu zituen.

### ➤ **Aurrekontu nagusia**

Devèze jaunak funtzionamendu eta inbestimendu atalak aurkeztu ditu eta azaldu du finantzen batzordean aztertu zituzten dokumentuak osatu dituztela gero, batez ere inbestimendu atalekoak, operazioz operazio egin dena xeheki emanaz.

Funtzionamenduko diru-sartzeak: 6 464 112,36 €, eta atal horretako gastuak, berriz: 5 616 178,37 €, hau da, soberakina: 847 933,09 €.

Inbestimendu diru-sartzeak: 3 858 491,35 €; gastuak berriz: 4 297 290,00 €, hau da, galera: 438 798,65 €.

Finantzen auzapezordeak argitu du artikuluz artikulua azalduko duela administrazio kontua eta gero, azalpenak behar badira, gai bakoitzetara etorriko dela. Ohartarazi du postu oro aztertu dituztela xeheki, finantzen batzordean, eta oposizioa bertan zela.

Funtzionamendu atalak ez du galderarik ekarri.

Inbestimendu atalari dagokionean, Bacardatz jaunak, gastuetan, 4 297 290 euroko kopurua ikusi du eta galdetu du ea munta bereko diru sartzeen erdia mailegua ote den.

Devèze jaunak erantzun dio inbestimendu gastuak aztertzeko modu partziala dela, 16. kapituluan, 1 539 541,76 euroko mailegu ordaintze bat baita. Maileguak hurbiltzeko, inbestimendu diru-sartzeetako 2 100 000 euroko mailegua inbestimendu gastuetako 1 150 000 euroez ordaindua dela.

Michelena jaunak dirulaguntzei buruzko azalpenak eskatu ditu, batez ere, aurrekontuan ziren kopuruen eta benetan jaso diren kopuruen arteko aldeari buruz: Eskualdearen kasuan, aurrekontuan 93 864 € ziren eta 31 030 € hartu dira, Departamenduaren kasuan, aurrekontuan 405 900 € ziren eta 86 357,55 € hartu dira.

Devèze jaunak aurrekontu baten oinarritzko funtzionamendua ekarri du gogora: aurrekontuak bi atal ditu, funtzionamendu atala eta inbestimendu atala. Funtzionamendu atalean, kutxak betetzen doaz, hala diru-sartzeekin nola gastuekin eta urtealdia amaitzean, egoera zehazten da. Kontabilitate publikoan, diruzaintzako kontabilitate bakun samarra da hori. Inbestimendu aurrekontuan, aldiz, egiteko geratzen diren teknika erabiltzen da, hala diru-sartzeetan nola gastuetan. Izan ere, administrazio kontuan aritzean, zenbait urtetakoak diren operazioak ditugu; gastu gisa sartuak dira aurrekontuan; badira zenbait urtealditan egiten diren operazioak. Alde horiek agertzen dira, oraingo

honetan, Eskualdearen eta Departamenduaren dirulaguntzen kasuetan. Dirulaguntzetan, gero eta zailagoa da funtzionamendurako zuzkidura orokorrak jasotzea, maila gorenean egiten ari diren murrizketengatik eta bizi dugun egoeratik, baina inbestimenduari dagokionean ere, berdin-berdin gertatzen ari da; orain dela urte zenbait, Eskualdearen edota Departamenduaren dirulaguntzen mailak oraingoak baino anitzez goragoak ziren.

Perez jaunak erantsi du administrazio kontuan sartu diren diru-sartze eta gastu guztiak gastu egiaztatuak direla, hau da, badutela Estatuaren, Eskualdearen edota Departamenduaren agindua, edo asmo gutun bat bederen, bereziki sailkaturik diren eraikinrentzakoentzako dirulaguntzen kasuan (Arnaga). Estatuak bere dirulaguntza erabakiaren berri ematen du eta, automatikoki, Eskualdea eta Departamendua jarraitzen zaizkie: Estatuak % 40, Eskualdeak % 15, Departamenduak % 25. Departamenduak hitzarmen bat egin nahi ukan du Herriarekin, sailkaturik diren eraikinen gaineko dirulaguntza oro zehazteko. Herri Biltzarrak 2015etik 2017era bitarteko hitzarmen horren gainean eztabaidatu zuen, iragan larrazkenean, Departamenduak zor dizkigun 400 000 euroen zati bat eginiko lanen izenpean kokatzeko eta beste zatia egiteko lanen izenpean. 400 000 euroetatik, Herriak, lehen hiruhilekoan, 262 910 € jasoko ditu; 2016 urtearen hondarrerako, 100 000 € inguruko kopurua aurreikusia da, 2016. urtean zehar bururatuak edo abiatuak izan diren operazioen ordaintzeko.

Auzapez jaunak zehaztu du aurreikusiak izan diren lan guztiak eginen dituztela; lanen zati bat ezin izan dute 2015ean egin, baina 2016an eginen dute. Baieztatu du hastapeneko aurrekontuan badela 262 910 euroko kopurua aurreikusia, batez ere Arnagako operazioetarako, eta horiei eraikinen isolatzeko berrikuntza lanak eta Arkitektura eta Ondarearen Balioa zabaltzeko Gunearen gastuak erantsi behar zaizkie, Kultura gaietarako Eskualde Zuzendaritzarekin. 2015ekoan sartuak ziren operazio horiek guztiak 2016ko hastapeneko aurrekontura eraman ditugu.

#### ➤ **Multzokako etxeen ur zikinen aurrekontu gehigarria**

Devèze jaunak multzokako etxeen ur zikinen aurrekontu gehigarria aurkeztu du; funtzionamenduko diru-sartzeak: 518 686,00 €, eta gastuak: 445 474,00 €, hau da, atalaren soberakina: 73 212,13 €. Inbestimenduko diru-sartzeak: 2 684 007,00 € eta gastuak: 1 745 954,00 €, hau da, atalaren soberakina: 938 053,09 €.

Bacardatz jaunak galdegin du ea 2015eko administrazio kontuaren emaitza 1 011 265,22 euroko soberakina den.

Devèze jaunak baieztatu dio hori dela hetsierako kontularitza emaitza metatua, hau da, kolektibitatea sortu zenetik metatu den kopurua.

Bacardatz jaunak dio 2014ko administrazio kontuak 703 424,79 euroko galera zekarrela eta, 2015ekoak, aldiz, 1 011 265,22 euroko soberakina duenez, galdetu du ea 2015eko administrazio kontuarekin den aldea 1 800 00,00 euroko mailegutik datorren.

Devèze jaunak hala dela erantzun dio.

#### ➤ **Banakako Etxeen Ur Zikinen Zerbitzu Publikoaren (BEUZZP/SPANC) aurrekontu gehigarria**

Devèze jaunak gogora ekarri du banakako etxeen ur zikinen zerbitzu publikoaren eskumena URA Sindikatari eman zaiola; ez da diru-sartzerik izan eta gastuak 4 523,71 eurokoak izan dira; hortik 4 523,71 euroko galera.

Metatu operazio horiek kitatzeko, emaitza hori kolektibitatearen aurrekontu nagusira pasako dugu; horrelakoetan soilik da legezko hala jokatzea.

➤ **Hilobien aurrekontu gehigarria**

Funtzionamendu atalak 23 569,46 euroko diru-sartzea dakar eta gastuetan, berriz, 71 026,90 €, hau da, 47 457,44 euroko galera.

Auzapez jaunak alde egin du eta bilkura burutza Juggleux andreak hartu eta aurkeztuak izan diren administrazio kontuak atalez-atal bozkatzera eman ditu.

➤ **Aurrekontu nagusia**

- Funtzionamendu atala: gehiengoz onartua. Abstentzioak: Hiriart-Urruty and., Bacardatz j., Aïçaguerre and. eta Michelena j.
- Inbestimendu atala: gehiengoz onartua. Abstentzioak: Hiriart-Urruty and., Bacardatz j., Aïçaguerre and. eta Michelena j.

➤ **Multzokako etxeen ur zikinen aurrekontu gehigarria**

- Funtzionamendu atala: gehiengoz onartua. Abstentzioak: Hiriart-Urruty and., Bacardatz j., Aïçaguerre and. eta Michelena j.
- Inbestimendu atala: gehiengoz onartua. Abstentzioak: Hiriart-Urruty and., Bacardatz j., Aïçaguerre and. eta Michelena j.

➤ **Banakako Etxeen Ur Zikinen Zerbitzu Publikoaren (BEUZZP/SPANC) aurrekontu gehigarria**

- Funtzionamendu atala: **aho batez** onartua.

➤ **Hilobien aurrekontu gehigarria**

- Funtzionamendu atala: **aho batez** onartua.

Auzapez jauna aretora itzuli da eta Herri Biltzarrari eskertu dio 2015eko administrazio kontuak onartu izana eta udal taldeari, eta bereziki auzapezari eta 2015eko hastapeneko arurrekontua gauzatzen lan egin duten zerbitzuei egin dieten kitapena.

## **5 – 2015eko emaitzen esleipena.**

M. Devèze jaunak, finantzen auzapezordeak, honako esleipen hauek proposatu ditu:

- Aurrekontu nagusiko 2015eko 847 933,99 euroko funtzionamendu emaitza positiboa, dagokion 2016ko hastapeneko aurrekontuaren inbestimendu diru-sartzeetara,
- Ur zikinen aurrekontu gehigarriaren 2015eko 73 212,13 euroko ustiatze emaitza positiboa, dagokion 2016ko hastapeneko aurrekontuaren inbestimendu diru-sartzeetara,

- Banakako Etxeen Ur Zikinen Zerbitzu Publikoaren (BEUZZP/SPANC) 2015eko 4 523,71 euroko funtzionamendu defizita, dagokion 2016ko hastapeneko aurrekontuaren funtzionamendu gastuetara,
- Hilobien aurrekontu gehigarriaren 2015eko 47 457,44 € dagokion 2016ko hastapeneko aurrekontuaren funtzionamendu gastuetara.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

2015eko emaitzen esleipena gehiengoaren bozez onartu da. Abstentzioak: Hiriart-Urruty andrea, Bacardatz jauna, Aiçaguerre andrea eta Michelena jauna.

## **6 – Lurren gaineko 2015eko politikaren bilana.**

1995eko otsailaren 8ko legearen 11. artikuluari jarraikiz, auzapez jaunak iragan urteko lurren gaineko politikaz eztabaidatzera gonbidatu du Herri Biltzarra.

- Aurrekontu nagusia:
  - «Courant d’Air» etxea erosi da, 100 000 eurotan.
  - 98 m<sup>2</sup> zabal den lursaila saldu zaie Moustiratstarrei (Donapetria etxe multzoa) 7 350 eurotan.
- Hilobien aurrekontu gehigarria: erosketarik ez 2015ean; salmentek 23 503,33 € ZGko kopurua osatu dute; haietan, 2 kutxategi, 1 091,66 eurotan, 3 hilobi bikoitz, 6 375,00 eurotan, 5 hilobi 4 lekutako, 13 045,00 € eta 6 lekutako hilobi bat, 2 991,67 €.

Bardin jaunak, bilkuratik alde eginez bat, Lespade andreari eman dio ahalordea.

## **7 – Arnaga: parkeko zuhaitzak segurtatzea.**

2015eko azaroaren 30eko deliberamendu batez, Herri Biltzarrak onartu zuen operazioan lan gidari den Forêt Conseil sozietateak aurkeztu zuen Arnagaren zuhaitz ondarea aztertze eta segurtatzeko 2016ko programa.

2016ko programaren kostua: 16 523,00 € ZG.

Herriak Estatuaren laguntza (DRAC Aquitaine-Limousin-Poitou-Charentes) eta Departamenduaren laguntza eskatu ditu.

Segurtatze lanak 2016ko apirilean egitekoak dira.

DRAC erakundeak proposatu diruztatze plana onartu beharko genuke, hau da:

Dirulaguntzak jaso ditzaketen lanak, ZG .....	16 523,00 €
Estatuaren dirulaguntzaren kopurua (% 40).....	6 609,20 €
Herriaren ekarpena, BEZarekin .....	13 218, 40 €

Auzapez jaunak zehaztu du, azken kopuru horretatik BEZaren zati bat berriz eskuratuko duela Herriak, hemendik bi urtera, inbestimendua delako, eta beste zatiari dagokionean, berriz, Herriak Departamenduaren aldetik % 25a jasoko duela.

Herri Biltzarrari, goian aipatu Estatuaren (DRAC) diruztatze plana onar dezan galdegin zaio.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Auzapez jaunak, herriaren izenean eskertu du DRAC Aquitaine erakundearen ondarearen zuzendari RIEU jaun, erretretara joan berria, Arnagaren alde erakutsi duen arreta handiarengatik eta onginahiarengatik. Batez ere, Arnagako lorategiak berritzeko lanetan obralariak eta enpresek aurreikusi kopuruak gainditu zituztenean, behar ziren funtsak atzematzen jakin zuelarik, beste aurrekontu lerroak bilatuz. Lorategi horien berritzeari eman zion lehentasuna eta auzapez jaunak lehen zatiaren irekitze ekitaldira gonbidatu nahi luke, neurri handi batean lagundu dituen lanen emaitzak ikus ditzan.

## **8 – Arnaga: Veber margolanen berriztatzea.**

Auzapez jaunak gogora ekarri du 2012ko abenduaren 17ko deliberamendu batez Herriak erabaki zuela Jean VEBER-ek, 1904 eta 1905 artean margotu zituen eta Jean VEBER-en iloba Dominique GILLET jaunarenak ziren «Contes de fées» izeneko jatorrizko margolan lekedatu guztiak erostea.

Hastapenean, margolan horiek Edmond Rostand-ek manatu zituen eta Rosemonde-ren saloi ttipian zeuden, Arnaga etxean. Margolan horiek aitzineko auzapezaren garaian proposatu zitzaizkigun, eros genitzan, baina DUHART auzapezak eta herri biltzarrak ez zituzten erosi nahi ukan.

Margolan horiek 2013an erosi genituen eta Versailles-en den Frantziako Museoen Ikerketa eta Berritze Zentroaren esku utzi, berriztatzeko asmoz azter zitzaten.

Berritze horren guztizko kostua 127 000 € ZG da. Estatuak erabaki du margolan horiek, aske izanik ere, higigarri izanik ere, higiezinak direla, helburuari eta definizioari dagokienean, eta eraikinaren berritzea bailiran jaso ditzaketela dirulaguntzak. Hartara, Estatuak % 40ko dirulaguntza emanen du eta gainerakoa herriaren kargura izanen da.

DRAC erakundeak proposatu diruztatze proiektua onartu beharko genuke, hau da:

Dirulaguntzak jaso ditzaketan lanak, ZG .....	127 000.00 €
Estatuaren dirulaguntza (% 40) .....	50 800.00 €
Herriaren ekarpena, BEZarekin.....	101 600.00 €

Herriak dirulaguntza osagarria aurkeztu behar die Eskualdeari, Departamenduari eta beste partzuer hauei: MAGINOT fundazioari eta CREDIT AGRICOLE bankuaren fundazioari.

Auzapezak, deliberamendua baino lehen, zehaztu du ezen herriak operazio hori 2016an egingen badu, gutxienik % 80ko dirulaguntzak behar dituela hartu. Horrenbesteko dirulaguntza eskuratu ezean, laguntzen osagarriaren beha egonen da, herriaren diru egoera ez kaltetzeko.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Gehiengoz onartua. Abstentzioak: Hiriart-Urruty and., Bacardatz j., Aiçaguerre and. eta Michelena j..

## **9 – Herri eraikinen energia baldintzen hobetzea: obralaria izendatzea.**

Goytino jaunak gogora ekarri du aitzineko agintaldian herri eraikin ororen ikuskapena egin zela. Ikuskapen horrek erakutsi zuen hainbat eraikinetan bazirela akatsak energia kontsumoan: igerilekuan, ama eskolan, herriko etxean, zerbitzu anitzetako zentroan, lehen mailako eskolan, Kanbo-Behereko eskolan. Igerilekua 2011n guztiz berritua izan zen.

Herriak jarraitu nahi luke 2015ean, udako oporraldian egin zen eta 220 000 euroko kostua ukan zuen «Chantecler» ama eskolaren berriztapenarekin abiatu zen herri eraikinen energia baldintzak hobetzeko operazioa.

Herriko Etxeak 2016rako programaturik dituen baldintza termiko eta energetikoak hobetzeko lanetarako 80 000 € ZG inguru daude, herriko etxean, zerbitzu anitzetako zentroan, lehen mailako eskolan eta Kanbo-Behereko eskolan aritzeko.

Deialdi bat egin da, proiektuaren gidaritzarako. Prozedura egokituko merkatuetarako batzordea 2016ko otsailaren 17an bildu zen. Eskaintzak aztertu ondoren, INGETUDES bulegoa hautatu du.

Auzapezak zehaztu du operazio hau diruztatzeko, Departamenduak operazio osorako emanen duen % 25a baliatuko dutela.

Hiriart-Urruty andreak aipatu du komeniko lukeela iraganean egin akatsak ez errepikatzea eta adierazi du igerilekuak orain ordaintzen dituen argindar fakturak berriketa baino lehen ordaintzen zituenak baino handiagoak direla.

Goytino jaunak erantzun dio akatsik ez dela izan. Philippe Bacardatz jaunak aipatu zuen, jadanik, gaia finantzen batzordean. Egiatan, argindar kontsumoa erruz apaldu da, lanen aitzineko garaietatik eta igaro diren lau urteotan izan da apaltze hori. Fakturen kopurua beti gora izatea zergek dute ekarri, erruz handitu baitira.

Hiriart-Urruty andreak seinalatu du prezioak gora egin duela, fakturak 18 000 eurotatik 25 000 eurotara igo baitira.

Goytino jaunak igerilekuaren argindar kontsumoaren taula aurkeztu du, non kontsumoaren apaltzea argi ageri baita.

Bacardatz jaunak zehaztu du argindar fakturaren osagarriak direla zergak, kilowatioak eta abonamendua. Lanak egindakoan, automatikoki, energia gutxiago xahutzen da eta horrek abonamendua birnegoziatu beharra dakar. Abonamendua ez dela aldatu uste du, eta, hartara, benetako kontsumoa baino gorago dela.

Goytino jaunak erantzun dio abonamendua birnegoziatua izan dela. Zergak beti gora doaz eta horrek energiaren kostua loditzen du.

Bacardatz jaunak galdetu du ea zergak igerilekuaren energia kontsumoa bikoizteraino loditu ote diren.

Goytino jaunak erantzun dio zergen loditzeak dakarrela fakturak kontsumoa bezainbeste ez murriztea.

Bacardatz jaunak dio fakturak ikusi behar direla.

Goytino jaunak zehaztu du fakturen jarraipena lau urteko epean egin daitekeela.

Bacardatz jaunak erantsi du abonamendua ikusi behar dela.

Goytino jaunak erantzun dio abonamenduak 2012-2013an aldatu zituztela, igerilekurako eta musika eskolarako.

Auzapez jaunak berriz ere dio kontsumoa apaldu izan ez balitz, fakturaren kopurua galantki goragoa litzatekeela.

Bacardatz jaunak onartu du kontsumoak apaldu direla, baina zergak bikoizturik ere, fakturen kopuruetan arazoren bat dela dio.

Auzapezak, lanen gidaritzarako INGETUDES bulegoa izendatzeaz bozka dezaten galdegin du.

Aho batez onartua.

## **10 – St Joseph parkeko jostalekua handitzea: deialdia berriz egitea.**

Jougleux andreak Herri Biltzarrari jakitera eman dio 2016ko urtarrilaren 8an, Herriak prozedura egokituzko merkatu publiko baten deialdia egin duela, St Joseph parkeko jostalekua handitzeko.

Egitekoa honako hau da:

- Jostalekuaren handitze eta antolatzea asmatzea,
- Gauzatze planak prestatzea,
- Jokoak, materialak eta hornidurak ekartzea,
- Lanen jarraipena egitea,
- Lanak egitea.

Operazio horretarako 55 000 € ZOB aurreikusiak dira

Eskaintzak egiteko azken data 2016ko urtarrilaren 28a zen eta hiru eskaintza hartu ditugu. Prozedura Egokituen Merkatuen Batzordeak eskaintzak aztertu ondoren, beste deialdi bat egitea erabaki da, baldintza agiri berri baten arabera, batez ere egun den jostalekua arauetara jartzeko aginduei jarraiki (jokoen arteko distantzia, arauetan ez diren zola moteltzaileak,...) Horretarako, merkatu publikoen kodearen aginduei jarraiki, Prozedura Egokituen Merkatuen Batzordeak merkatua ondorioz gabetzat eman du, ororen intereseko arrazoiengatik.

Herri Biltzarrari Prozedura Egokituen Merkatuen Batzordearen erabakiari jarrai diezaiola eta St Joseph parkeko jostalekua handitzeko deialdi berria egin dezala galde egin zaio.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

## **11 – 7 haritzen errepidea: lursail baten utzi eta jabari publikora eskualdatzea.**

Auzapez jaunak gogora ekarri du Hirigoyen andrea –sortzez Meynier Geneviève- BH 88 lursaila uzteko prest dela, orain dela zenbait urte egin zitzaizkion bidearen berrituratze lanen ordainez eta bere etxeraino, «Maitenbordaraino», bero bidezko estalkia ematearen ordainez. Lan



horien kostua, lursail horretarako, jabarien erakundeak 2015eko irailaren 14an egin zuen balioztapenaren heinekoa da, hau da, 13 840 €.

Lursaila 692 m<sup>2</sup> zabal da eta 7 haritzen bidean da; sektorea sutatik babesteko ur ontzi biguna egiteko aukera emanen digu.

Herri Biltzarra honako hauen gainean erabakitzea deitua da:

- 692 m<sup>2</sup> zabal den BH 88 lursaila eskuratzeko printzipioaz, orain dela zenbait urte Hirigoien andrearenean eginiko bidearen berrituratze lanen ordainez eta etxeraino, hau da «Maitenbordaraino», bero bidezko estalkia ematearen ordainez, lanen kostua jabarien erakundeak lursailerako egin duen balioztapenaren heinekoa delarik, hau da, 13 840 €.
- BH 88 lursaila jabari publikora eskualdatzeaz.

Agiri egite eta geometra gastuak herriaren kargura dira.

Hiriart-Urruty andreak sutarako ur ontzi biguna zer den galdetu du.

Auzapez jaunak erantzun dio etxeetatik hurbil den ur bilgune bat dela, suhiltzaileek, sua itzaltzeko behar duten ura har dezaten.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Argitxu Hirigoyen andreak ez du bozketan parte hartu.

Aho batez onartua.

## **12 – Etxalde produktuen merkatua: araua aldatzea.**

Jougleux andreak jakitera eman du Herri Biltzarrak, 2015eko ekainaren leheneko deliberamendu batez, erabaki zuela produktu freskuen eta etxaldeetako merkatua eskulangintzako produktuetara ere hedatzea, esperimentu gisa, 2015eko ekainaren 2tik urriaren 16ra bitartean, biak barne, eta merkatuaren araudi berria onartu zuela.

Herri Biltzarrari proposatu zaio merkatua behin betiko zabal dezan produktu fresku eta etxaldetakoetara eta tokiko eskulangintzako produktuetara, 2016ko martxoaren 15etik goiti, eta araudi berria onar dezan.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

## **13 – Hatu merkatua: tarifen eta araudiaren aldatzea.**

Jougleux andreak Herri Biltzarrari jakitera eman dio hatu merkaturako, 2016ko martxoaren lehenetik goiti, tarifa berriak ezartzeko proposamen bat duela. Bi tarifa proposatu ditu: sasoi beteko tarifa (uztaila, abuztua, iraila, urria), egunean 10.00 eurotan, 8 ml hartzeko, eta sasoi arineko tarifa (martxoa, apirila, maiatza, ekaina, azaroa, abendua), egunean 5.00 eurotan, 8 ml hartzeko. Luzerako metro gehiago bakoitzeko, 1.80 € ordaindu beharko da. Lehen proposatu urteko abonamendua indar gabe utziko da.

Auzapez jaunak Herri Biltzarrari, tarifa horien eta araudiaren aldatzeaz erabaki dezan eskatu dio.

Aho batez onartua.

## **14 – Dirulaguntzen edo herriaren laguntza finkoen gaineko abantzia.**

Auzapez jaunak Herri Biltzarrari jakitera eman dio herriak hiru erakunderen etorkizuneko dirulaguntzen edo herriaren laguntza finkoaren gaineko hiru abantzu eskaera jaso dituela:

- Turismo Bulegoarentzat, 85 000 euroko dirulaguntza abantzia.
- Hezkuntza ministerioarekin partzuergo kontratua duten status pribatuko bi eskolen galdea,
  - \* Ste Marie eskolak, OGEC delakoaren aldeko 35 000 euroko abantzia, herriaren laguntza finkotik,
  - \* Errobi Ikastolak SEASKA delakoaren aldeko 15 000 euroko abantzia, herriaren laguntza finkotik.

Auzapez jaunak 2016ko hastapeneko aurrekontua egin bitartean, dirulaguntza eta herriaren laguntza finkoen gaineko abantzu egite hauetaz erabaki dezaten galde egin die hautetsiei.

Aho batez onartua.

## **15 – *Essor basque*: hitzarmena.**

Irastorza jaunak Herri Biltzarrari galde egin dio, auzapez jaunari baimena eman diezaion, 2 000 euroko hitzarmen bat sina dezan *Essor basque* delakoarekin, txirrinda lasterketa antola dezan, aurten, Kanbo helmuga-herri baita.

Auzapez jaunak zehaztu du etorkizunean, kirol proba hori egin aitzinetik, Herri Biltzarrari galdatu beharko zaiola delibera dezan; gero bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

## **16 – Herriaren ikasle laguntzak.**

Saint Jean jaunak gogora ekarri du gizarte ekintzaren batzordea iragan urtarrilaren 30ean bildu zela, 2015-2016 ikasterterako herriak emanen dituen ikasle laguntzen eskariak aztertzeke.

Hogei eskari egin zaizkio.

Herri Biltzarrak hogei ikasle laguntza emateaz erabaki behar du; diruzko kopurua 9 000 eurokoa da, guztira (kredituak hastapeneko aurrekontuan aurreikusiak dira).

Gaineratu du herriaren ikasle laguntza hori finkatzeko estatuaren ikasle laguntzen % 15a hartzen dela kontuan.

Auzapezak zehaztu du departamenduak ere parte hartzen duela; hartara, ikasleek estatuaren, departamenduaren eta herriaren laguntzak jasotzen dituzte. Bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

## **17 – Langileak.**

Perez jaunak gogora ekarri du sasoilarien lanpostu taula iraunkor bat bozkatu zutela iaz, baina honako lanpostu hauek erantsi behar dituztela orain:

- Arnaga: lekura gero eta bisitari gehiago hurbiltzen delarik, sasoilari bat gehiago eskatu da, 2016ko ekainaren lehenetik urriaren 31 bitarte ari dadin; lanpostua ez da betiko eta lanaldi erdiz aritzeko da.

- Mediateka: iraunkor ez den lanaldi osoko lanpostu bat eskatu da, 2016ko uztaileko.

- Arnagako lorategiak: iraunkor ez den lanaldi osoko lanpostu bat eskatu da, 2016ko ekainetik azaro bitartean ari dadin (6 hilabete), 2016ko apirilaren lehenean erretreta hartuko duen langile baten ordeztu.

- Herriaren garbiketa: iraunkor ez den lanaldi osoko lanpostu bat eskatu da, 2016ko maiatzetik urriaren bitartean ari dadin (6 hilabete), 2016ko maiatzaren lehenean erretreta hartuko duen langile baten ordeztu eta erretreta horren kariatara zerbitzua berrantolatu bitartean.

- Ostatatze Gabeko Aisialdi Harrera: opor txiki eta handien jantokia:

Ostatatze Gabeko Aisialdi Harrera Gizarte Laguntzarako Herri Zentrotik Herriaren eskuetara eskualdatu denez, iraunkor ez diren lanaldi murrizteko bi lanpostu sortu beharko lirateke, jantokiaren zerbitzua betetzeko, baxerak egiteko eta zolen garbiketarako, opor garaietan.

Opor txikiak: negu, udaberri, Omiasainduan: 2. mailako laguntzaile tekniko 2 lanpostu, bakoitzak astean 10 oren eginez,

Opor handiak: uztaile-abuztua: 2. mailako laguntzaile tekniko lanpostu bat, astean 10 oren eginez eta 2. mailako laguntzaile tekniko lanpostu bat, astean 13 oren eginez.

- Etorkizun lanpostua: 2013ko martxoaren 18ko deliberamendu batez, Herri Biltzarrak lanaldi osoko etorkizun lanpostu bat sortu zuen, hiru urterako -2013ko apirilaren lehenetik 2016ko martxoaren 31 bitarte- Ama Eskoletako Langile Berezitu lanak (AELB-ATSEM) eta garbiketa lanak egin ditzen.

Langilea, egun (2015eko abenduaren lehenetik 2016ko ekainaren 30era), euskara ikasteko formakuntza intentsiboan da eta haren kontratua hiru hilabetez luzatu behar genuke, 2016ko apirilaren lehenetik ekainaren 30era bitartean, formakuntza bukatzeko denbora ukan dezan.

Estatuak, kontratua luzatzen dugun denboran, jarraituko du lansari gordinaren %75eko laguntza ematen.

Auzapez jaunak sortzeko diren lanpostu ororen gainean bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

Hiriart-Urruty andreak galdetu du ea sasoilari lanpostuen zerrenda eskura lezakeen.

Auzapez jaunak erantzun dio zerrenda erabakitakoan emanen diotela.

## **18- Emaitza.**

Auzapez jaunak Herri Biltzarrari jakitera eman dio Kanbo-Behereko norbaitek, Echevarria andreak, hain zuzen, Jesus Echevarria bere senarrak zizelkatu zenbait eskultura, Kanbo herriari eman nahi diola.

Hamar eskultura dira eta orotara, 110 000 € inguruizan dira balioztatuak; gastuak -2 017,38 € ZOB- herriaren kargura dira.

Eskerrak adierazi dizkio Echevarria andreari emaitzagatik, Jesus Echevarriaren lan multzo bat eskuratzeko bide eman baitio Kanbo herriari.

Auzapez jaunak, bide batez, gogora ekarri du 2016. urtean Jesus Echevarriaren sortzearen mendeburua dela, eta herri biltzarrari jakitera eman dio Jesus Echevarriari buruzko erakusketa handia egingen dela, bi hilabetez, Azantzan, eta Donostia 2016, Kulturaren Europar Hiriburuaren kariatara, Herriak Arnaga etxea eta lorategiak irekiko dituela egungo artesteentzat; Jesus Echevarriaren brontzeak ere erakutsiko dira Arnagako lorategietan.

Auzapez jaunak bozkatzera deitu du.

Aho batez onartua.

Auzapez jaunak zehaztu du Echevarria andreari idatziko diola, herri biltzarrak emaitza onartu diola erranez eta erakutsi duen eskuzabaltasuna eskertuz, Kanbo Herriak egin dituen ahaleginak ordaintzeko manera hori eskertuz eta herriari bidea ireki diolako Jesus Echeverriaren nortasunaren eta obraren gerizatzailea izan dadin.

## **19– Auzapezaren erabakien berri.**

Lurralde Kolektibitateen Kode Nagusiaren L.2122-22 eta L.2122-23 artikuluei eta herri biltzarraren 2014ko apirilaren 7ko deliberamenduari jarraiki, jakitera eman da:

- Ez duela erosteko lehentasuna erabili, 2016ko urtarrilaren 23tik otsailaren 19ra bitarte, honako kasu hauetan:
  - Lurrak: 0
  - Etxeak: 4
  - Apartamenduak: 1
- Hilerriko emakidak emate eta hartzeari buruzko erabakiak, 2016ko urtarrilaren 23tik otsailaren 19ra bitarte:
  - 15 urteko emakidak erostea: 0
  - 30 urteko emakidak erostea (+ hilobiak): 2
  - 30 urteko emakidak erostea (+ errauts kutxategiak): 0
  - Emakidak 15 urterako berritzea: 1
  - Emakidak 30 urterako berritzea (hilobiak): 0
  - Dohaineko lurrak berreskuratzea

## **20– Hainbat gai.**

- Auzapez jaunak gogora ekarri du finantzen batzordea martxoaren 3an, ostegunarekin, bilduko dela, 18 orenetan, eta hurrengo herri biltzarra hastapeneko aurrekontuei buruz egingen dutela, martxoaren 21ean, astelehenarekin, 20 orenetan.
- Auzapez jaunak herri biltzarrari jakitera eman dio, zoritxarrez, norbait saiatu zela bere buruaz beste egiten, Kanbo-behereko zubitik behera salto eginez eta beste hiru pertsonak sokorri eman ziotela. Herriko poliziaren, jendarmeriaren eta sokorri zerbitzuen txostenak ikusiz, prefetari eman zion horren berri, otsailaren 17an idatzi gutun batez. Prefetak igorri eta egun heldu den prefetaren erantzuna irakurri du. Brontzezko medaila emanen zaie hiru sokorri emaile horiei, ausardiaz eta bihotz osotasunez jokatu baitzuten.

- Auzapezak herri biltzarrari jakitera eman dio egiteko berritan hasiko direla bi langile, 2016ko martxoaren lehenean:
  - Thierry Eudes jauna, zerbitzu teknikoaren zuzendariaren laguntzailea, Patrick Elizalderenak ziren lanetan arituko da, azken hori Senpereko herriko etxean ari baita orain.
  - Céline Hochart-Garivet andreak, giza baliabideen zerbitzuan zenak Marie-Pierre Brave-ren lanpostua hartuko du, azken hori beste egitekoak baititu orain, Maité Bidabé-ren ordezkari arituko baita engoitik, auzapezaren, auzapezordeen eta zerbitzuetako zuzendari nagusiaren idazkaritzan.

- Auzapezak herri biltzarrari jakitera eman dio ezen Donostia 2016, Kulturaren Europar Hiriburua kariatara, «Echanges Pays-Basque» izeneko elkartearen ordezkariak Herriari eskari bat egin diotela. Egungo arteetako erakusketa proiektu bat aurkeztu dute Arnagako etxean, laranjondotegian, zalditegian eta lorategietan egiteko. Donostiako bi artistek erakutsiko dituzte beren obrak, 2016ko ekainaren erdialdetik irailaren hondarra bitarte: Jose Antonio Sistiaga margolariak, 60 urteetan GAUR mugimenduaren sortzaile, eta Inigo Arregi eskultoreak, Oteizaren ikasle izan zenak. Aurrekontuari dagokionean, elkarte lauzkari pribatuen bila dabil eta Herriak 10 000 € inguru ordainduko ditu; gainerakoa -70 000 € inguru- lauzkariak ordainduko dute. Auzapezak departamenduari egin dio galdea, zeinak 7 000 € eta 8 000 € artean emanen omen dizkio, baieta Akitaniako Kultura Ekintzetarako Eskualde Zuzendaritzari eta Akitania eskualdeari, hauteskundearen aitzinetik.

- Hiriart-Urruty andreak galde egin du ea kontratatutako izan diren pertsonak antzeko egitekoak ote zituzten lehengo lanpostuetan.

Auzapez jaunak zehaztu du Hochart-Garivet andrea giza baliabideetan espezialista zela eta Eudes jaunak eraikuntza kudeaketa egin duela eta gero, Gard departamenduan marrazkilari izan dela. Herriak kontuan hartu ditu haien esperientziak eta asmoak.

- Hiriart-Urruty andreak galdetu du ea hautagai asko aurkeztu den lanpostu bi horietara.

Auzapez jaunak baietz erantzun dio. Kudeaketa Zentroak lagundu dio Herriari kontratatze horietan. Lehen sailkapena haien laguntzaz egin da eta dozena bat hautagai atxiki ditugu lanpostu bakoitzerako. Epaimahai batek, non Kudeaketa Zentroaren ordezkari bat baitzen, hautatu du pertsona.

- Hiriart-Urruty andreak suposatzen du ez direla bertakoak eta, hartara, ez direla euskaldun.

Auzapez jaunak erantzun dio ez direla euskaldun, baina, behar balitz, euskara ikasteko prest direla.

- Bacardatz jauna Zesar Zelaiko bideko lanetara dator berriz eta galde egin du ea HEA bulegoak fakturatuak izan diren gastuak zuzentzeko arazoak ote dituen, gutunak bi hilabete ondoren heldu baitira eta administratuek ez dute oraino erantzunik jaso.

Devèze jaunak gogora ekarri dio jadanik hiru aldiz bederen erantzun diola, lehenagoko bilkurretan, eta zehaztu dio ez duela datarik eman. Herri Biltzarrak erabaki bikoitza eman zuen, merkatua ECRDri esleitzeko eta lanen gidaritzan HEAri. Herriak bi eragileei eskatu dizkie fakturak egiteko baliatu dituzten elementuen gaineko azalpenak.

Astearen hondarrean, ECRDren kalkulurako elementuak jaso ditu, HEAk kontrolaturik; martxoaren lehenean, asteartearekin, goiz partean, herriko etxean bilduko gara elementu

horien aztertze. Auzapez jaunak elementu zehatzak esku artean dituenean erantzunen die biztanleei.

Bacardatz jaunak galdetu du ea arrapostuak faktura horiek ordaintzeko azken epea baino lehen helduko diren, hau da, 2016ko apirilaren lehena baino lehen.

Devèze jaunak erantzun dio Herriak elementu zehatz oro esku artean dituenean emanen dituela arrapostuak, fakturek elementu zehatzak eta egiazkoak ekar ditzaten, kostuak zehatz-mehatz azalduz, egiazko kostuen arabera fakturatuko baitu eta ez prezio finko batez.

Bacardatz jaunak gogora ekarri dio gutun bat eta gunean bertan jendeen hartzea eginen zituela agindu zuela.

Devèze jaunak erantzun dio ez duela sistematikoki eginen, ez bada biztanleek hala nahi badute; atsegin handiz hartuko ditu, engaiatu zen bezala.

Auzapez jaunak Herri Biltzarraren bilkura amaitutzat eman zu, 22:30ean.